

Azpeitiar gazteek euskaraz hitz egiten dute... baina noka gero eta gutxiago darabilte

BATXILERGO IIKO 103 IKASLERI egin diote hizkuntzei buruz inkesta. Ondorio nagusia ondokoa da: Gipuzkoako Urola bailarako herri euskaldun honetan euskara osasuntsu dago gazteen artean, baina erregistroaren esparruan galera handia izan du hitanoak, bereziki nokak. Inkestatutako azpeitiarrek familian, ikastetxean eta lagunartean, gehien euskara erabiltzen dute. Dena dela, sexuaren arabera bereizketa

nagusitu da eta nesken artean gero eta gehiago egiten dute zuka. Mutilen artean hika mantentzen da. Hitanoa lehenengo familian galtzen da, eta gero ikastetxean.

Gehien irakurtzen duten egunkaria *El Diario Vasco* da; euskaraz berriz *Berria* eta *Hitz* dituzte gogokoen. Aldizkarietara dagokienez, bertako *Uztartaria* da nagusi eta ondotik prentsa-arrosari lotutako agerkariak datoz. Gaztelaniaz gehien ikusten

duten saioa *Los Simpson* da eta euskaraz *Goenkale*.

Hizkuntza jarrerari dagokienez, lehen hitza euskaraz egiten dute herrian, baina Azpeititik aterata portzentajeak behera egiten du. Gaztelaniaz zuzentzen zaienari nekez eskatzen diote euskaraz egiteko.

%88k gidabaimena euskaraz ateratu du edo ateratzeko asmoa dauka.

Bahea

Julia Marin Arteagak 31 eskutik blogean esanak:

“Ezagutzen dut euskaltegi irakasle mordoxka bat, herri txikietan sortutako euskaldun peto-petoak, beti euskara batu aseptiko uniforme bera ahoan dutela ibiltzen direnak Gasteiz aldean, berdin dio lagun-giroan dauden, edo irakasle batzar batean, edo eskola ematen ikasleei, edo txango batean”.

Iñaki Arrutik gipuzkoaeuskara.net blogean esanak:

“Ni lehendakaria banintz, osatzear nukeen gobernu berriko sailburu izendatzeko, besteak beste, euskaraz C1, gaztelaniaz C1 eta ingelesez B2 izatea eskatuko nieke. Ni lehendakaria banintz, politika-hizkuntza jarriko nuke hizkuntza-politikaren erdigunean. Nik neuk (eta nire sailburuek...) eredia emango nuke (gobernu-kontseilueta edota legebiltzarrean adibidez) hizkuntza-sailetik egin beharreko lanak zeintzuk diren erabaki aurretik. Nik, lehendakaria banintz, erakartzeko izango nukeen indar horretaz baliatuz, dotore, errespetuz, euskara behar erakargarri bihurtzen ahaleginduko nintzateke”.

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Etxebizitza eta langabezi arazoak konpondu behar dira

BARAKALDOTIK DONEZTEBERA, Bizkaitik Nafarroara, Ezkerraldetik Iparraldera, etxebizitzaren eta langabeziaren arazoa bera da. Joan den astean Manuel Reguerak bere buruaz beste egin zuen Donezteben, jabeari alokairua ez ordaintzeagatik desalojatua izateko zorian zen egunean. 4.200 euro zor zituen eta langabezian zegoen. Lehenago Amaia Egaña izan zen bere buruaz beste egitea erabaki zuena, Barakaldoko etxebizitzatik kanporatzear zirenean. Haien berri ez dakigun arren, beste batzuk ere suizidatu dira langabe eta etorkizun barik aurkitu direnean. Hau idazten duena beste kasu baten lekuko izan zen joan den astean Bizkaian.

Errepikatzen den errealitate gordin horren sako-neko arazoak bi dira, eta errora jotzen ez badugu –kapitalismoak sorturiko krisia– bere horretan segiko du. Kontua da etxebizitza eta lan eskubideak ez direla errespetatzen, konstituzio orok exijitzen duen arren. Kapitalismoak bere erakundeak erreskatatzen

ditu –bankuak eta aurrezki kutxak–, eta aldiz, langabeziara, miseriara eta etxerik ez izatera derrigortzen ditu milaka pertsona. Badago dirua bankuak eta kutxak salbatzeko, baina ez inbertitzeko eta lana sortzeko. Euskal Herrian 255.000 etxe huts daude, baina milaka lagunak ezin dute bizkar gainean duten hipotekarekin bizi, langabezian edo soldata prekarioekin daudelako.

Politika ekonomikoetan aldaketa erabatekoak beharrezkoak dira, enplegua sortu eta etxebizitza izatea erraztu dezaten. Etxebizitzaren Institutu Publikoa behar da, alokairu soziala bultzatzen zentzuzko prezioetan. Horretarako, subiranotasun politiko, ekonomiko, laboral, judizial eta sozialean oinarrituriko eredu sozioekonomikoaren alde borrokatu behar da. Hor aurki ditzakegu langabezia eta etxebizitza arazoak konpontzeko soluzioak.

Juan Mari Arregi

